

Jarki-k Pello Marinelarenari omenaldia egingo dio bihar

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 13/05/2022

Larunbat honetan, maiatzak 14, 13:00etan Etxarri-Aranatzeko plazan, Jarki antolakundeak orain dela 29 urte eraildako Pello Marinelarenari omenaldia egingo dio.

Pello Mariñelarena Imaz, Etxarri-Aranatzen jaioa, gazte sartu zen ETA-n, militantzia eta lana uztartzen zituelarik. 1990eko azaroaren 3an atxilotu zuten Britainian, La Sante-ko kartzelara eraman zutelarik.

Bertan, 1993ko apirilean gaixo sentitu ondoren, HIESA diagnostikatu zioten. Kartzelaren osasun baldintza eskasen eta asistentzia ezaren ondorioz, espetxe politikagatik eraila izan zen 1993ko maiatzaren 15ean.

Bere jaioteritik eta aberritik ehunka kilometrora zendu zen.

Antolakundeak, lehengo urtean, udalak gudarien oroitarriak kentzea gaitik zabaldu zuen oharrean zioen moduan, "herri honetako gudariak", "Euskal Herriaren aldeko konpromisoan eta honekiko maitasunak bultzatutako borrokan zehar erori ziren". "Euren oroimena, euren eredua, euren aurrera eramandako militantzia politikoan eta egintzetan herriaren gogoan oinazez eta malkoz markatuta geratu da". "Euskal Herria nazio gisa zein klase gisa zapaltzen duten espainiar eta frantziar estatuak zein euren borrero leialak diren etsaiak horren jakitun dira, horren kontziente dira eta horregatik, era jarraian herri honen memoria ezabatu eta herri honen alde borrokatu eta eroritakoen oroimena desagerrarazi nahian dabilta".

"Herri honetako langile klaseak, pairatzen duen zapalketari aurre egiterako bidean", "parametro politikoetan gudarien zein herri honen borrokaren lanketa politiko publikoa burutuko dugu, ezin baita oroitzapenetatik bizi, baina oroitzapen eta memoria barik, ezin baitaiteke aurrera egin."

<https://eh.lahaine.org/jarki-k-pello-marinelarenari-omenaldia>